

Ura eta Erredin

ERREDIN

- Iturriak
- Latsagiak
- Ibaiak, errekak
- Putzuak
- Askak
- Erlazionatutako toponimia



Felix Lizarragak 2024an egindako iturria

ITURRIAK

Erredinen hainbat iturri eta iturburu daude. Horietako bat da Fuente Vieja (iturri zaharra), herriko gorenean dagoena, mendiko bidean. Ingurune hari izena ematen dio iturriak. Aspurotzen eta Agoten ere iturburu eta iturri gehiago daude. Horietako asko urtarokoak dira, eta Erro ibaira isurtzen duten erreken sorburua dira.

LATSAGIAK

Herri erdian bazen latsagia. Gaur egun aurriak baino ez dira gelditzen. Bazuen iturria ere. Jada ez dira ez bata ez bestea. Ura herriaren goialdean dagoen iturburu batetik (iturri zaharra) ekartzen zen. 1940a baino lehen jaiotako herritarrek ezagutu zuten. Lanak ausarki erraztu zituen; izan ere, lehen, ura pegarretan ekarri behar zen etxera, buru gainean. Are, emakumeak latsagira joan behar izaten ziren lixiba egitera.

IBAIA, ERREKAK

Erro ibaia Erredingo ekialdetik igarotzen da, eta muga naturala egiten du beste herri batzuekin, hala nola Ozkaritzekin. Antzina, herritar guztiek zuten herri-lurretan baratzea, ibai ondoan. Erroibarko errepidea egin zenean, baratzeak desagertu ziren, bidezkoek baratzeetako mozkinak ebasten baitzituzten.

Ibaia baliatzen zen ureztatzeko, baina baita elikatzeko ere, bertan harrapatzen baitziren loinak, barbok eta karramarroak.

Errekek denek isurtzen dituzte urak Erro ibaira. Horietako asko urtarokoak dira. Urte osoan zehar emaria izaten du “Fuente Vieja” dermioan (iturri zaharra) sortu eta Miñakaren baratzearen eta “Lavadero” dermioaren (latsagia) artetik doan errekek. Agoteko iturburuak ere urte guztian izaten du emaria.

PUTZUAK

Herriko etxe gehienek (Fernandorena, Luisena) bazuten putzua. Gainera, putzu bat zegoen herriaren erdian, agidanez, hainbat etxek partekatzen zutela. Putzurik gehienak estalita daude.

ASKAK

Antzina baziren askak herrian. Gaur egun, badira mendian, aziendari edaten emateko, kasurako, Txorrotxagakoa edo Erresolakoa.

ERLAZIONATUTAKO TOPONIMIA

Urarekin lotutako toponimoak badira, hala nola “La Fuente Vieja” (iturri zaharra), “El Lavadero” (latsagia) edo “Las Huertas del Río” (ibaiko baratzeak).